

AINGURAK

edo

ZER HARTU ONTZITIK

ITSASOA HARRI BIHURTZEN BADA



Hormigoizko olatua

MARTA SENDIU JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY

Basamortu bilakatutako itsasoan murgilduko gara. Hormigoizkoa den harri masa honetan zehar ibiliko gara eta horretarako gidari izango dugu arrantzale peto horia. Harekin batera, itsasontziek daramaten aingurak eta hari lotutako sokak lagunduko gaitu. Lurra- ren bilaketari ekingo diogu elkarrekin eta topatzen ditugun arazo, zailtasun eta beldurrei elkarrekin egingo diegu aurre.

“Gazte Sortzaileak” bekaren bosgarren edizioan aukeratua izan zen proiektu baten aurkezpena da hau. Miren Narbaiza, Joseba Larratxe eta Joseba Baleztina elkarrekin igo dira Gasteizko Aldabe Gizarte Etxeko oholtzara. *Aingurak* edo *Zer hartu ontzitik itsasoa harri bihurtzen bada* izeneko lana aurkeztera datoz. Horretarako, bi musikarik eta komikigile batek osatzen duten taldea izango dugu bidelagun eta esze-

natokiaren ia osotasuna hartzen duen pantaila zuri bat.

Aretoa iluntasunez josia dago, isiltasuna da nagusi eta Joseba Larratxe (Josevisky) hizketan hasi da. Komiki honetan marrazkilaria eta gidoilari lanak egin ditu eta transmititu nahi izan dituen edukien laburpen txiki bat egin du. Itsasoak neguko egun ilun eta tristeetan duen kolore gris-neutro gogor hori abiapuntu hartuta, lehortutako itsaso alternatiboan marinel galdu baten lur bilaketa prozesuan barneratuko garela aurreikusitako digu.

Diziplinarteko emanaldi honetan, bizitzan zehar topatzen ditugun hainbat egoera eta sentipen azaltzen dira, hala nola, kargak, beldurrak, etab. Umore kutsua gehitzen dio komikigileak, baina eragin filosofiko batekin nahastuta. Ikuslearentzako arina ez izan arren, bu-ruari ekiteko beta ematen dio.

‘AINGURAK’ IKUSKIZUNA

NOIZ: maiatzak 18

NON: Aldabe Gizarte Etxea, Gasteiz

Begietako kliskak eten egiten dira komikiak aurrera egiten duen heinean eta idortuta gelditzen dira. Belarriek ere, Micek eta Joseba B. Lenoirrek egiten duten musika eskatzen dute. Gitarra errepikapenak, grabazioak, zarata hotsak, dunbala eta maraken konbinazio pausatua eta erritmikoek lagundu dituzte binetak.

Marinelaren bilaketan barneratuta zaudenean eta haren istorioaren amaiera zein izango ote den jakiteko gutxi falta den momentu horretan agertuko da hormigoizko olatu erraldoia. Beldurra ematen duen olatu handi eta suntsiezin horren atzean kokatzen da lurra. Protagonistaren kemen, indar eta ausardia direla eta, igotzeko ezinezkoa zen olatua eskalatzea lortuko du, bide luze eta zail honen ondorengo sari ezin hobea izango dena. ●